

3. ETXERAKO ARIKETA

1. Egin ondoko egituren perpaus-diagrama ahalik eta zehatzen, X' Teoria jarraituz (4 p.):

- (1) Eztabaidak gorabehera, hiru pisukideok etxeko lanetan elkarri laguntza handia ematen diogu.
- (2) Zer kantatu zuen jendeak astelehenean manifestazioaren ostean?[1]
- (3) Ez diogu guk oraingoz inori ezer eskatuko.
- (4) Nork pentsatzen duzu zuk agintzen duela hemen eta hor?

2. Goiko (3-4) perpausak hartu eta (2.5 p):

a. azaldu itzazu gertatu diren mugimendu guztiak, behar den lekuan aztarna utziaz;

b. azaldu ezazu mugimendu bakoitza zein motatakoa den;

c. argitu ezazu zein den mugimendu bakoitzaren eragilea edo arrazoa. Buru-mugiden kasuan, azaldu ezazu mugidaren zein azpikasua den (A/a-Asp-Dnb[2]; Dnb-Ezezt; Dnb-Foku).

1. Lehen mugimendua DS mugida bat da, eta *IHZk (*Islapen Hatsarre Zabaldua) eragiten du, espezifikatzeileak, kasu honetan DnbS-rena, beteta egon behar delako.

Bi eta hiru mugimenduak aldiz, buru-mugidak dira. A-a-Asp azpikasua dira, hitzaren (aditzaren) osaera-morfologikoa eraginda gauzatzen dira.

Laugarren eta azken mugimendua ere buru-mugida bat da. Kasu honetan Asp-Dnb azpikasua betetzen du, eta Dnb-i euskarri fonologikoa bat emateagatik gertatzen da, Dnb-k gabezia fonologikoa baitaika.

2. Lehen mugimendua DS-mugida bat da, eta hau ere *IHZ-k eraginda dago.

2 mugimendua NZ-motako mugida da. Argumentuek zertan bete ez duten lekuetara mugitzen da, baina NZ hau Fokuarekin komunztadura bete dezan gertatzen da.

Hiru eta lau mugimenduak buru-mugidak dira, eta A-a eta a-Asp azpikasua betetzen dituzte, hurrenez hurren. Hauen eragilea aditzaren osaera-morfologikoa betetzearena da.

Bostgarrena berriz ere buru-mugida dugu, eta Asp-Dnb azpikasua egiten du. Dnb-en gabezia fonologikoa dela eta, Asp bertara mugitzen da, euskarri fonologikoa bat emateko.

6 mugida ere buru-mugida bat daukagu. Dnb-Foku azpikasua da, eta honen eragilea azaltzeko kontuan izan behar dugu NZ perpausa dela: NZ-ren mugimenduarekin batera, Dnb ere mugitzen da, Fokuak behartuta, honek lexikalizatu beharra duelako (perifrastikoak hegoaldean Dnb osoa, kasu honetan bezala).

3. Hirugarren perpaus honetan ere, 1 mugimendua berriz ere DS-mugidaren kasu bardina dakusagu. Eta honen eragilea ere, aurrekoetan bezala, *IHZ da.

Bigarren eta hirugarren mugimenduak buru-mugidak dira. Aditzaren osaera-morfologikoa betetzeko gertatzen dira, eta bere azpikasua A-a-Asp dira.

Azken mugimendua, 4 mugimendua, Dnb-Ezezt. azpikasuko buru-mugida bat da. Mugida hau azaltzeko, murriztapen nagusi bi daude bere eragilearen inguruan: denboraren o-komando baldintza, Dnb buruak perpauseko buru funtzional guztiak o-komandatu behar izatean datzana; eta berriz ere Dnb-i euskarri fonologiko bat ematearena: Dnb-en gabezia dela eta, ezeztapenari atxikitzen zaio euskarri fonologiko bat lortzeko.

4. Lehen mugimendua DS-mugida bat da, eta hau ere *IHZ-k eraginda dago.

Bi eta hiru mugimenduak, buru-mugidak dira. A-a-Asp azpikasua dira, eta hitzaren (aditzaren) osaera-morfologikoak eraginda gauzatzen dira.

4 mugimendua buru-mugida bat da. Kasu honetan Asp-Dnb azpikasua betetzen du, eta Dnb-i euskarri fonologiko bat emateagatik gertatzen da, Dnb-k gabezia fonologikoa baitauka.

Bost mugimendua buru-mugida bat da, Dnb-Ezezt. azpikasukoa. Mugida hau azaltzeko, baldintza nagusi bi daude bere eragilearen inguruan: denboraren o-komando baldintza, Dnb buruak perpauseko buru funtzional guztiak o-komandatu behar izatean datzana; eta berriz ere Dnb-i euskarri fonologiko bat ematearena: Dnb-en gabezia dela eta, ezeztapenari atxikitzen zaio euskarri fonologiko bat lortzeko.

6, 7 eta 8 mugimenduak NZ-mugidak dira. NZ tasuna sendoa denez, (7 eta 8 kasuetan) NZ sintagma Fokuarekin komuntadura egiteko mugitzen dira. 6ren kasuan aldiz, *IHZ-k betetzen du eragilearen papera, subjektu funtzioa hartzen baitu. Oro har, mugimendu hauen kasuan (sintagma beraren mugimenduak direla kontuan izanda), beste hatsarre bat ere aipatu beharko genuke: Buru-mugidaren murriztapena. Murriztapen honen arabera, o-komandatu duen buru-gune hurbilenera mugituko da. Horrela, horrenbeste jauzi azaldu ahal ditugu.

Bederatzigarren eta hamargarren mugimenduak, buru-mugidak dira. A-a-Asp azpikasua dira, eta hitzaren (aditzaren) osaera-morfologikoak eraginda gauzatzen dira.

11. mugimendua buru-mugida bat da. Kasu honetan Asp-Dnb azpikasua betetzen du, eta Dnb-i euskarri fonologiko bat emateagatik gertatzen da, Dnb-k gabezia fonologikoa baitauka.

12 eta 13 mugimenduak buru-mugidak dira. Dnb-Konp-Foku azpikasua betetzen dituzte. Kontua da, Dnb-Konp eta Dnb-Foku mugimenduek eragile eta izaera berdina dartzela eta hori dela elkar gainjartzen direla esan genezake. Eragileari dagokienez, baldintza nagusi bi daude bere eragilearen inguruan: denboraren o-komando baldintza, Dnb buruak perpauseko buru funtzional guztiak o-komandatu behar izatean datzana; eta berriz ere Dnb-i euskarri fonologiko bat ematearena: Dnb-en gabezia dela eta, ezeztapenari atxikitzen zaio euskarri fonologiko bat lortzeko.

3. Ondorengo perpausak ez dira gramatikalak; kasu bakoitzean ahalegindu zaitez zehazten zertan datzan ezgramatikaltasuna; hots, esazu zerk huts egin duen (baldintza, hatsarre edo murrizketa bat baino gehiago urra daitezke aldi berean). Zeure aukera justifikatu behar duzu (2.5 p.):

(1) * Zein alderdi entzun duzu Kongresuko mahaitik baztertuko dutelako albistea?

(cf. Zein alderdi entzun duzu baztertuko dutela Kongresuko mahaitik?)

Perpau honetan, Foku eta NZ-mugidako NZ-irizpidea urratu da, DS konplexuen murrizketa hain zuzen. Zein DS konplexu baten parte da: [Kongresuko mahaitik zein alderdi baztertuko dutelako albistea], eta hori dela eta ezingo litzateke DS osotik mugitu. Baldintza hau ez betetzean, perpausa ez-gramatikal bilakatzen da.

- (2) * Zein kanta liluraten zaitu behin eta berriro entzuteak ?
(cf. zein kanta maite duzu behin eta berriro entzutea?)

Kasu honetan, subjektu funtzio daukan (edo izan beharko lukeen) DSa barik, bere parte den *Zein kanta* mugitzen da fokuaeren espezifikatzaile, Ateraketa Eremuen Baldintza ez errespetatuz. Honen arabera subjektu funtzioa daukaten sintagma irlak dira NZ-mugidak gertatzekotan.

- (3) *Xabier Amurizari poztu naiz pila bat *Manuel Lekuona* saria eman diotela-eta.

Hemen ere, aurrekoan bezala, Ateraketa Eremuaren Baldintza urratu da. Honetan aldiz, sintagma osoak [*Xabier Amurizari Manuel Lekuona saria eman diotela-eta*] adjunktuaeren izaera dauka, eta ez subjektuarena.

- (4) * Nori emango dio nork buruz buru berri ertuna?

Goragotasun baldintzaren arabera, perpaus bakun berean bi NZ-hitz egonez gero, gorago dagoena mugituko da. Perpaus honetan ez da hori gertatu, *nori* NZ-hitza mugitu da, eta honek *nork*-ek baino beheragoko posizioa dauka perpausaren.

- (5) *Karmele Jaiok iragarri dute irratian noiz aurkeztuko duen liburu berria.
(cf. Karmel Jaiok iragarri dute irratian aurkeztuko duela liburu berria).

Perpaus honetan, Ateraketa Eremuaren Baldintza urratu da. [*Karmele Jaiok noiz aurkeztuko duen liburu berria*] menpeko perpausak adjunktua izaera dauka, eta esan bezala adjunktua irlak dira NZ hitzen ateraketari dagokionez. Honetaz gain, Mugida Laburrenaren Hatsarrea ere urratu dela esango nuke, *Karmele Jaiok* ez baita posizio hurbilenera mugitu.

- (6) * Zer ikus esploradore nekatu batek tristeziaren metro karratu baten mugetan lezake?

Buru Mugidaren Baldintza urratzen da honetan. Honen arabera, burua lehenengo o-komandatzen duen buru-gunera mugitu behar da. Perpaus honetan, Asp ez da Dnb-ra mugitzen, baldintza hau urratuz. Bigarrenik, Mugida Laburrenaren hatsarrea ere apurtzen du *ikus*-ek.

4. Topikalizazioa (perpaus hasierako topikoa edo mintzagai dena pausa batez bereizita) A'-mugidatzat hartu ohi da, NZ-mugidaren antzera, baina badira bien artean antzekotasunak eta aldeak. Ondoko (1-6) perpausak aztertu eta, zeure iritzia gramatikala eman ostean, [3] argudiatu ezazu ea zertan diren berdinak eta desberdinak mugida mota biak. Kasu guztietan (a) abididea NZ-mugidari dagokio eta (b) adibidea topikalizazioari; libre zara, noski, nahi dituzun adibide gehigarriak ere erabiltzeko.

- (1) a. Zein liburu Amaiak aspaldian irakurri zuen?
b. *Haragia* liburua, Amaiak aspaldian irakurri zuen.

Perpaus hauetan, biek ala biek burutzen dituzte mugida berdina: objektu zuzenaren funtzioa daukaten *zein liburu* eta *Haragia liburua* sintagma bere lekutik FokuS eta TopSren espezifikatzaileetara

mugitzen dira, hurrenez hurren. Lehen perpausak aldiz, beste mugimendu baten beharra dauka NZ-irizpidea betetzeko, eta betetzen ez duenez, perpausa ez da gramatikala: euskaraz (hizkuntza guztietan ez), NZ-hitzaz gain, fokuak ere A-2 fenomeno obeditzen du, eta perpausa gramatikala izateko Dnb-k ere fokura mugitu behar du. Hegoaldeko euskararen Dnb-ekin batera aditz nagusia ere mugitzen da, Ipar Euskal Herriko euskalkietan aldiz ez. Honetaz gain, bietan gertatzen da argumentu-mugida.

- (2) a. Zein liburu entzun duzu [irakurri zuela Amaiak aspaldian]?
b. *Haragia* liburua, nik [Amaiak aspaldian irakurri zuela] entzun dut

Honako perpaus biak ere, aurrekoan aipatutako NZ-irizpideak bereizten ditu. A perpaus honetan aldiz, A-2 fenomeno fokuak ere obeditzen du, bai perpaus nagusian, bai mendekoan ere, NZ-irizpidea betez. Hori dela eta, perpausa gramatikala da. TopS batean ez dago, horren beharrik, eta horregatik ez da betetzen. OZ funtziodun sintagmak, biak iritsi dira perpaus nagusiko FokuS eta TopS-ko espezifikatzaileira, bakoitzak bere beharrezko pausua eman ondoren (adibidez, lehen perpausuan, aditza ere fokura igota egotean, NZ-hitza ere bertan egonda dagoelaren froga dugu). Honetaz gain, bietan gertatzen da argumentu-mugida.

- (3) a. Zein liburu galdetu didazu ea noiz irakurriko dudan?
b. *Haragia* liburua, bi aldiz galdetu didazu ea noiz irakurriko dudan.

a perpausoko menpeko perpausa zehar-galdera bat da, ta hauek NZ-irlen Murrizketaren arabera irla dira NZ-hitza bat mugitzaile orduan. Hori dela eta, lehen perpausa ez da gramatikala. Bigarrena aldiz, NZ-perpausa ez denez, ez dauka murrizketa horren beharrik, beti ere TopS-ko espezifikatzaileira mugitzaile mintzagaia aurretik ezagutzen den informazioa den. Honetaz gain, bietan gertatzen da argumentu-mugida.

- (4) a. Zein liburu miresten duzu idatzi duen idazlea?
b. *Haragia* liburua, neuk idatzi duen autorearen miresten dut.

Honako perpaus biak ez-gramatikalak dira, DS konplexuen Murrizketa urratzen baitute. Murrizketa honen arabera, ezin dira sintagmak zatitu eta mugitu. Beraz, perpaus gramatikalki zuzenak *Zein liburu miresten duzu idatzi duen idazlea?* eta *Haragia liburua, neuk idatzi duen autorearen miresten dut* izango liriteke. Gainera, a perpausuan NZ-irizpidea betetzen da, perpaus nagusiko aditza fokura mugituta baitago, bestean ez (beharrizatik ere ez). Honetaz gain, bietan gertatzen da argumentu-mugida.

- (5) a. Zein liburu idatzi didazu whatsapp bat erosi duzulako?
b. *Haragia* liburua, whatsapp bat idatzi dizut erosi dudalako.

Honako perpaus biak ez-gramatikalak dira. DS konplexuen Murrizketa urratzen dute. Murrizketa honen arabera, ezin dira sintagmak zatitu eta mugitu. Beraz, perpaus gramatikalki zuzenak *Zein liburu erosi duzulako idatzi didazu whatsapp bat?* eta *Haragia liburua erosi dudalako, whatsapp bat idatzi dizut* izango liriteke. Gainera, a perpausuan NZ-irizpidea betetzen da, perpaus nagusiko aditza fokura mugituta baitago, bestean ez (beharrizatik ere ez). Honetaz gain, bietan gertatzen da argumentu-mugida.

- (6) a. Zein liburu flipatu zintuen irakurtzeak?

b. *Haragia* liburua, erabat flipatu ninduen irakurtzeak

Honako perpaus biak ez-gramatikalak dira. Subjektu Perpausen Murrizketa urratzen dute: perpaus hauen Sakoneko egituran, subjektu funtzioa [*Zein liburu irakurtzeak*]-ek eta [*Haragia liburua irakurtzeak*]-ek betetzen ditu, eta aipatutako murrizketaren arabera, subjektu funtziodun perpausak ezin dira zatikatu eta osagai bat mugitu. Gainera, bi perpausetan NZ-irizpiea betetzen da, perpaus nagusiko aditza fokura mugituta baitago. Honetaz gain, bietan gertatzen da argumentu-mugida.

Zein ondorio atera daiteke mugida mota bien arteko konparaziotik? Mugida bien arteko antzekotasun formalak handiagoak direla aldeak baino? Alderantziz? Arrazoitu zeure erantzuna (1 p).

1. Perpaus hauetan badira antzekotasun batzuk, baina baita ageriko desberdintasun bat. Gertatzen dena da, desberdintasun hori ez dela gauzatzen, perpausa ez-gramatikal bihurtzen duen arren. Hortaz, Mugiden arteko antzekotasuna erabatekoa da.
2. Perpaus hauetan badira antzekotasun batzuk, baina baita ageriko desberdintasun bat. Oraingo honetan, alde hori bai gauzatzen da. Hitzun normal baten belarrira, alde hau (Dnb → Fok) antzekotasunak (argumentu-mugida, OZ-ren mugida) baino handiagoa izan daiteke, baina modu formal batean aztertzen jarriz gero, antzekotasunak aldeak baino gehiago direla konturatuko gara.
3. Perpaus hauetan badira antzekotasun batzuk, baina baita ageriko desberdintasun bat. Gertatzen dena da, desberdintasun hori ez dela gauzatzen, perpausa ez-gramatikal bihurtzen duen arren. Hortaz, Mugiden arteko antzekotasuna erabatekoa da.
4. Perpaus hauek ere nahiko antzekotzat joko nituzke, mugida gehienetan bardintsu jokatzan dutelako, eta batetan baino ez dutelako berdin egiten (Dnb → Fok).
5. Perpaus hauek ere nahiko antzekotzat joko nituzke, mugida gehienetan bardintsu jokatzan dutelako, eta batetan baino ez dutelako berdin egiten (Dnb → Fok).
6. Perpaus bi hauek erabateko antzekotasuna dute bee mugidetan.